



Guraso ugari hurbildu ziren Landaberri ikastolako Garikoetxea erakiner eta Isla plazara etxeko txikiak ikustera. Batzuentzat gainera lehengo danborrada izan zen.

Trantatan, trantatan,...

Herriko gazte eta hurrek ederki
astindu zituzten danborrak

Donostia zirudien atzo gure herriak. Danbor jole eta urketari ugari ikusi genituen gure kaleetan eta Sarriegiren doinuak entzun ziren herriko hainbat puntutan.

Lasarte-Oriako ikastetxeetako kideek atzo arratsaldean ospatu zuten San Sebastian eguna. Eguraldia lagun, Sasoea-Zumaburu ikastetxeko eta Landaberri eskolako haur, zein gazteek aste hauetan zehar egin duten lana erakutsi zieten gurasoei.

Dotore, haiek egindako sukaldari, urketari edo Napoleonen garaiko jantziak soinean eta kapelak buruan zituztela, danborra ederki astindu zuten musika ezberdinen eraritmoan.

Berrikuntzak

Iriyarena, Tatiago, Polka edo Donostiako martxa izan ziren haur eta gaztetxoek Danbor Nagusien zuzendaritzapean jo zituzten doinuak.

Baina Raimundo Sarriegi ezagunaren kantak ez ezik, Antonio Mercero herriko ereserkiaren notak ere entzun ziren Landaberri ikastolan. Eta ederki abestu zuten gaztetxo eta hurrek herriko ereserkia eta bere hitzak.

Gainera, Sasoea-Zumaburu ikastetxeko ikasle txikiak Zumaburuko eraikina utzi eta Isla plazara joan ziren kalejiran. Bertan gurasoak haien zain zeuden. Askorentzat lehenengo danborrada izan baita. •



Ederki jarraitu zituzten danbor-jole nagusien aginduak ikastetxeetako hurrek.



Uztaro kontsumo kooperatiba, partaide bila

Elikagai-merkatuaren aurrean alternatibak sortu eta nekazaritza ekologiko-sozial baten aldeko apustua egiteko helburuarekin sortu zen orain zazpi urte Uztaro kontsumo kooperatiba. Beizama barazketan gero eta uztu oparagoak jasotzen ari dira, eta astero produktu ekologikoen oterra jasotzen duen taldea handitzeko aukera eskaintzen dute. **4-5. orrialdea**

KULTURA /3

Kukuka antzerki eta dantza eskolak logo lehiaketa jarri du martxan

KIROLA /6

LOKEko atletak hainbat domina lortu zituzten Gipuzkoako txapelketan

KIROLA /6

Intzako pilotariek lan ona egin zuten lehengo astean



ZURE ETORKIZUNA DISEINATU NAHI DUZU?

MATRIKULA ZABALIK
urtarrilak 30 - otsailak 10

Presentación de María
Otsailak 1, 18:00etan
Informazio bilera
943 551 782
presentacion-urnieta.com

Salesiarrak
943 551 789
salesianosurnieta.com

Urtarrilak 28, 11:00etan
Informazio bilera

Neure kabuz



Ni han egon nintzen

Progre usteko askok esan ohi du gezur hau: "Yo si estuve allí". Parisko 68ko maiatzean alegia. Esaten duten guztiak han egon balira....

78an, "Yo si estuve allí" Gau euritsu batean Donostiako tren geltokira 6 preso iritsi ziren, bi gure herrikoak.

"Presoak kalera" lemarekin haziak gara gu. Gure belaualdiak lelo hau jaio ginen ezkerre entzun eta oihukatu dugu.

Nik orain ez dakit solfeorik eta txistua gutxiago. Orduan ere ez nekien baina notak paper muttur batean letraz idatzi eta pieza bat jotzen ikasi nuen.

Sol, do, do, do, do, do,
mi, re, fa,
Sol, re, re, re, re, re, fa,
mi, do
Sol, do, do, do, do, do,
mi, re, fa
Si, si, si, la, la, sol... e.a.

Nik bezala solfeorik ez dakizuenontzat: Aupa gizona.

Gau hartan pieza hura jo eta jo aritu ginen, besterik ez genekielako. Eta ikusten duzuenez memorian ongi-txertatua geratu zen.

Gerotik gauza asko pasa zaizkigu, asko egin dugu, eta "tenemos mucho que hacer". (Ez pentsa espainolez jarri ditudanak deskuidatuak daudenik. PSOEko barne-txostenen izenak dira.)

Baina guztioi aplikatzeko moduko izenburuak dira bizi ditugun egun hauetan.

Badakizue zer esaten dizuedan txistu zaharrari hautsak kendu eta entsaiatzen hasi beharra daukagula. Ongi etorri asko espero ditudalako. Eta bertan egon nahi dut.

Maiu Arruti

Zorion-agurrak



Irati

Zorionak eta muxu potolo bat familiaren partetik.



Eneritz eta Gaizka

Zorionak bikote! Ondo pasa zuen egunean! Aita-txo eta amatxoren partetik



Nahia

Hamaika urte, hamaika gozatu eta hamaika zorion. Muxu handi bat etxekoan partetik.



Iñaki

Pausoka pausoka urteak aurrera doaz. Muxu potoloa Jalguneko lagun partetik.



Aritz

Zoriona eta muxu handi bat Txipi eta bere familiaren partetik.



Aratz

Zorionak!!! Bi muxu pottolo, ama, aita eta Nai-ren partetik.



Conchi

Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetzean! Muxu handi bat familiaren partetik.



Pako

Zorionak familiaren partetik. Urte askotan ospatzen jarraitu dezagun.



Haizea

Zorionak guapetona, pastelak zure kontu, Mila zorion familiaren partetik.



Saioa

Zorionak Saioa! Oso ondo pasa zure 8. urtebetetzean! Muxuak familiaren partetik!




Maitane

Zorionak! Mila muxu eta ondo ospatu zure eguna! Familiaren partetik.



Heriotzak

• Ernestine Mirabelle
Mot Heu, urtarrilaren 16an,
46 urte zituela.



Jaiotzak

• Udane Borreguero Gonzalo,
urtarrilaren 7an.



Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Logela alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean: pertsona arduratsu eta garbia bilatzen da. 230 + gastuak. Tel: 686 932 714.
- Pisua alokatzen da Zumaburur. Interesatuek 943 36 54 27 zenbakira deitu. Maria Jesus
- Lasarten pisua eta kotxeko marra alokatzen ditur. Pisuak hiru logela eta bi komuna ditu. Guztia hego aldera dago kokatuta. Harremanetarako, 606 391 998.
- Logela bat alokatzen da, pertsona langile eta arduratsuari, Lasarteko erdialdean. Interesa daukateneke telefono honetara deitu: 637 315 213.

Salerosketak

- Moto berria salgai: Kymko Agility City 125 modeloa, oraindik matrikulatu gabea eta prezio onean. 1.500,00 eurotan, buruko kaskoa, giltzarra, kofrea eta matrikulaketa barne. Zozketan egokitutakoa. Tel.: 607 426 126.

Lan-eskaintzak

- Etxea garbitzeko pertsona bat behar da, orduka lan egiteko. 660 138 038.

Lan-eskariak

- Txakurrak paseatzeko pertsona arduratsua eskaintzen da. Harremanetarako, 620 190 207.

• Geriatrian laguntzailea, eskarmentua duen pertsona arduratsua jende adindua edo gaixoak zaintzeko edo garbiketa egiteko prest dago. Orduka, gauetan edo asteburuetan. Profesionaltasuna eta tratu ona eskaintzen du. Carlos (680 983 527).

• Emakume esperientziaduna umeak edo pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko eskaintzen da. Klaudia, 663 117 579.

• Lan egiteko prest nago, umeak eta edadetuek zaintzeko modu finkoan. Interno bezela ahal bada. 943 365 149.

• Emakume arduratsu eta esperientzia handikoak adinduek zainduko lituzte. Asun 943 362 473 667 075 139

• Etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko emakumea eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 647 025 876.

• Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrian trebatua den gaztea eskaintzen da. Interesatuek 679 526 305 telefono zenbakira dei dezatela.

• Emakume bat frantseseko goimailarekin haurrei-helduei eta enpreetan klaseak emateko eskaintzen da. Itzulpenak ere egiten ditu. Telefono: 680 581 914/ 943 372 748.

Bestelakoak

• Zientzi arloan klase partikularrik ematen dituen esperientzia duen mutilak. 695 719 085.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 20

Urbistondo, San Frantzisko 1
Tel.: 943 36656

Larunbata, 21

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 22

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 23

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 24

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 25

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 26

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte. Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.800 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Kukuka antzerki eta dantza eskolak ikasturte berriaren eta hamargarren urteurrenko aurkezpena egin zuen irailean.

Kukukak logoa aukeratzeko lehiaketa abiatu du

Otsailaren 15era arte aurkeztu ahalko dira lanak

Zabaleta auzoan antzerki taldea lanean hasi zenetik hamar urte bete direla ospatzeko ikasturtean zehar ekintza eta ospakizun ugari antolatuko ditu Kukuka antzerki eta dantza eskolak. Horietako bat da logoa aukeratzeko lehiaketa.

“Lasarte-Oriako Antzerki eta Dantza eskolaren irudi bihurtuko den logoa urteurrenean estreinatuko dugu,” azaldu digute eskolako arduradunek.

Eta hortik aurrera, irudi hau eskolaren zabalpenean, ekintza puntualetan nahiz eguneroko funtzioetan erabiliko da.

Baldintzak

Kukukako arduradunek jakin arazi dutenez, lehiaketan parte hartu nahi duen pertsona orori zuzenduta dago.

Halabaina, partehartzaile bakoitzak gehienez bi diseinu

aurkeztu ahal izango dituela azpimarratu dute eta oinarriak onartu behar dituela.

Irudiak betebeharreko baldintzak; diseinua originala eta berria izatea eta antzerki eta dantza eskolaren izpiritua islatzea dira, baita Kukuka antzerki eta dantza eskola leloa bere baitan jasotzea ere.

Lanen aurkezpena

Era berean, lehiaketako antolatzaileek diseinuak nola aurkeztu ere azaldu dute.

Partehartzaileek logotipoa koloretan eta txuri beltzean paperean, nahiz CD batean gordeta aurkeztu behar ditu. Hauek diseinu grafikoa ohikoak diren programetan eginak izan behar dira. Eta nahi izanez gero, azalpen labur bat ere egin daiteke.

Lanak DIN A-4ko kartazal batean aurkeztuko dira, Kukuka antzerki eta dantza eskola etiketa jarrita.

Barnean, sobre itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak jarri beharko dira: izen-abizenak, helbidea elektronikoa eta telefonoa.

Lanak Lasarte Oriako kultur-etxean Kukukaren izenean jarrita dagoen buzoian utzi beharko dira, 2012ko otsailaren 15a baino lehen.

Epaia eta saria

Epaimahaia Kukuka antzerki eta dantza eskolako kideek osatuko dute eta haiek ezingo dute lanik aurkeztu.

Logo lehiaketako saria 300 eurotakoa izango da eta gainera, epaimahaikoek agiri idatzia emango diote irabazleari.

Era berean, Kukukak jakin arazten du, erabakiaren ostean, logotipo irabazlearen jabe bakarra antzerki eta dantza eskola izango dela eta erabiltzeko askatasun osoa izango duela. •

IKASTETXEAK

Aurrematrikula garaia ikastetxeetan

Urtarrilaren 30ean ikastetxeetan 2012-2013 ikasturteko aurrematrikula egiteko epea zabalduko da.

Horregatik, ikastetxeek ikasle berrien gurasoekin bilera informatiboak egin nahi dituzte.

Landaberri Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendaritza taldeak urtarrilak 26an, arratsaldeko 15:15etan Garaiko-etxeako eraikineko Soinketa aretoan egingo du.

Sasoeta-Zumaburu ikastetxean, berriz, Zumaburuko egoitzan izango da bilera otsailaren 1ean, 17:00etan.

Gurasoek otsailaren 10a arte izango dute aukera matrikula egiteko. •

EUSKAL KARABANA

Saharako errefuxiatuentzat janari bilketa

Lasarte-Oriako Sahara Herriaren Lagunak taldeak aurten ere, Euskal Karabanarako elikagai bilketa egin du. Gaur urtarrilaren 20a, Lasarte-Oriako eta Añorgako ikastetxeetan eta herriko supermerkatuetan elikagaiak biltzeko azken eguna izango da. Hauetan, arroza, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak bildu nahi ditu elkarteak Saharako errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko.

Herriko guneez gain, otsailaren 4ean egun osoz Sahara Herriaren Lagunak taldekoek Urbil merkatal gunean bilduko dituzte elikagaiak. •

OINATZ TALDEA

Donostia ezagutzen

Igandean Oinatz taldeak Donostiako historia eta bitxikeriak ezagutzeko irteera egingo du. Horretarako, Historiaren etxea, Untzi Museoa eta Santa Maria basilika eta San Bizente elizak bisitatuko ditu taldeak.

Txango honetan parte hartu nahi dutenek goizeko 9:45ean egon behar dute tren geltokian eta ez 8:45ean aurreko Txintxarriko zenbakietan argitaratu dugun bezala. •

INAUTERIAK

Inauterietan parte-hartzeko eskabideak

Lasarte-Oriako Udalak Inauterietan parte-hartzeko eskabideak egiteko epea zabaldu du. Honakoak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira hilaren 27a baino lehen.

Oinarri zein beharrezkoak diren inprimakiak, Manuel Lekuona kultur-etxeko bigarren solairuan izango dira eskuragarri. •

INAUTERIAK

Euskal Inauterietako konpartsa lanean da

Inauterietarako hilabete baino gutxiago geratzen da eta Euskal Inauterietako Konpartsak entseguak hasi ditu inauterietako iganderako, otsailaren 19rako guztia prest egon dadin. Antolatzaileek parte hartu nahi duen herritar orori dei egiten diote. Entseguak astearte eta ostegunetan dira arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara Landaberri BHIren egoitzan. •

TTAKUN. K.E.

Batukada taldearen bilera gaur

Azken urteetan, Ttakun Kultur elkarteak antolatu eta eskaini dituen ekintza ugarien artean, Batukada taldea dago. Taldeak San Pedroetan eta beste hainbat ekitaldietan parte hartu zuen martxan egon zen bi urteetan.

Urte beteko etenaldiaren ostean, antolatzaileek proiektua berriro ere martxan jarri nahi dute. Lehenengo saioa ostirala honetan, urtarrilak 20, izango da 17:45ean, Ttakuneko gazte lokalean, Iñigo de Loyola kalean. Ondorengo entseguak ostiraleroko 18:00etatik 20:00etara izango dira, Landaberri BHI erakikinean. •



Ogi-Berri-ko saria Antonia Perezek eskuratu du

Pablo Mutiozabal kalean dagoen Ogi-Berri okindegiak “El Niño”-ko loteriarekin zozketatzen zituen 1.500 euroak Antonia Perez herritarrentzat izan dira. Asteartean, jaso zuen Antoniak bere saria eta jakitean ezusteko handia hartu zuela aipatu digu, eta baita, gehiena erregetako oparietan gastatu duela ere. Argazkian Ogi-Berri okindegiko arduradunarekin. •

“Kontsumitzeko beste modu bat posible da”

Uztaro kooperatibakoek barazki ekologikoz betetako oterra jasotzen dute astero Danok Kide elkartearen egoitzan Hilero 66 euroko kuotaren truke, izena eman eta elkarteke bazkide egiteko aukera zabalik dago Lasarte-Orian



Elkargi-merkatuaren aurresan allematibak sortu eta nekazaritz sozial eta ekologiko baten aldeko apustua egiteko helburuarekin jato zen orain zarpri urte Uztaro kontsumo kooperatiba. Beiziamako Leunda-Berri eta Amenabar baserrien ondoan dauzkaten baraztiak barazkiak jasotzen dituzten kontsumitzaile taldeak herri ezberdinetan daude: Villabona, Azkoitia, Zestoa, Zarautz eta Lasarte-Orian bain zuzen ere. Azken talde honetako parte dira Ainhoa Ortégga eta Virginia Pozo herritarrak eta momentuan barazki kopuru handia dela eta, saski gehiago egiteko moduan direnez herriko taldea handiltzeko dela egin dute.

Maiorde AZURMENDI

Uztaro Kontsumo Kooperatibak Lasarte-Orian hamabi kideko kontsumo unitate bat da Danok Kide elkartearen eskarrik, honen egotzan jasotzen dituzte aske-lehenor Beiziamako lurretatik tritziako barazki zera frutak. Uztaro oparok izaten ari dira eta herriko taldea handitzeko moduan direla jakitera eman izan dute. Lasarte-Oriana herriko taldearen parte hartzaileak izaten dira. Lasarte-Oria@hotmail.com helbidea martxan jarri dute herritarrek bereakien harenetan jartzeko izan dezaten. Produktuak ekologikoak dira.

Nola sortu zen Uztaro?

Duela zazpi urte talde bat elkarlanean zehaztasun bidezko saiakerak egiteko asmoarekin, Hartutako ereduak Madrilgo BAH "Bajo el asfalto está la huerta" mugimendua izan zen eta Beiziaman kontsumo kooperatiba martxan jarri zen eskarrik zuzen hausnarketa eskarrik ondorioz. Hasiara batean lurra landatzen izan lagun jardun zuten eta, hiru dirua, familia kontsumo unitateak dituelakoak sortu izan ziren herri ezberdinetan, hau da, barazkiak jasotzeko moduan zuzentzeko asmoarekin.

Uztaro Euskal Herriari aitorditu izan zen eta egun beste kontsumo kooperatiba askoren erreferentzia da, Urturigo Usurbilzentzat adibidez. Zentratu izan zirenez gero, kontsumo kooperatiba berrituz gero, kontsumo kooperatiba berrituz gero, kontsumo kooperatiba berrituz gero...

Uztak oparok izaten ari dira eta oter gehiago egiteko moduan gaude momentu honetan.

Etxerako argazki Ainhoa Ortega eta Virginia Pozo Danok Kide elkartearen lokalak barazkiak jasotzen. Eskubian taldea barazkiak jasotzen Beiziaman kolektura daukaten barazki asklak.

Uztaroren desberdintasuna parte hartzean dago. Kide izatearekin batera zentzua hartzen da.

Horretaz gain hilero herri bakoitzeko taldea biltzen da asklak barazki eta fruituak jasotzeko. Danok Kide elkartearen erkin bakoitzeko taldea biltzen da asklak barazki eta fruituak jasotzeko. Danok Kide elkartearen erkin bakoitzeko taldea biltzen da asklak barazki eta fruituak jasotzeko...

Besteak auzolanak ere antolatzen dituzte. Bai barazkiez gain, fruta arboak ere badituzte eta tarteka beharrezkoak izaten dira kanliatzen (urturtoaren, eguraldiaren, lantaldetaren) egotzeren eta abarren araberak. Baina kontutuan izan behar da gure produkzioa ekologikoa dela, oro har.



Egungo gizartearen kontsumo ereduak aldatzea posible dela uste dugu. Uztaro da horren adibide.

izaten, eta horrela, alde guztiaren artean oreka bat lortzen da. Proiektu hau aurrera atera-tzeko, antolaketa horizontal batean oinarritzen gara taldean: erbaki guztiak barazki-tan eta bileretan hartzen dira. Denon artean erabakitzen dugu dena eta guztion irizkiak balio bera dute.

Barazki eta frutak lantzeaz gain, besteak ere badauzka? Bazkide bakoitzak bere bazkideekin elkarlanean jarduten du, eta horrela, alde guztiaren artean oreka bat lortzen da. Proiektu hau aurrera atera-tzeko, antolaketa horizontal batean oinarritzen gara taldean: erbaki guztiak barazki-tan eta bileretan hartzen dira. Denon artean erabakitzen dugu dena eta guztion irizkiak balio bera dute.

Ekimen honekin diru, asko aurreratu da, haziak temporan erosi behar ez direlako. Aldi berean gure produktuen baliotza ere bermatzen ari gara. Kontsumo lan egiten da Uztaroren eta horrela atal bakoitzak, nolabait, esateko, bere arduradunak dituzte, bakoitzak frutak, berak, konpostak, dago, hazien...

“Baserriko” kide ere bada Uztaro...? “Baserri” kontsumo kooperatibak bitzen dituen sare berrak da eta, bai, hor dago, Uztaro. Oraindik bloga jatorria da eta nolabait egituratzen ari da baina honen helburua dauden kontsumo talde guztien arteko elkarlana sustatzea da. Esateko orain gure baratzetan aza asklak dago eta truke proposatu zate Urturigo ekizleak beste produktu batengatik. Horrelako harenak lantzea onargarria izan da.

Kontsumo arduratsuego bat egiteko aukera zabalitzen ari zanezela esan al daiteke? Bai, euren kontsumo arduratsuego bat egiteko aukera zabalitzen ari zanezela esan al daiteke? Bai, euren kontsumo arduratsuego bat egiteko aukera zabalitzen ari zanezela esan al daiteke?

Zer esango zenitke herritarrei Uztaron parte hartu dezaten? Hasteko kontsumitzeko beste modu batean parte hartzea lizentziatuta Uztaron herria eta besteak, jaten duzuna nondik eta nola ateratu den ikusten duzula.



ANTAIKAK
J A N T Z I - D E N D A
ERRETIRATZEAGATIK LIKIDAZIOA!
Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362386



Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 21

09:30etan, Trintxerpe-Ostadar (Infantilen Ohorezko Maila, kopa) Trintxer, Trintxerpen.

10:00etan, Ostadar-Zumaiaiko (Infantil Txiki, kopa) Michelinen.

11:00etan, Antigua Luberri-Ostadar (I. Infantil) Rezola, Añorgan.

11:30etan, Texas Lasartearra-Beasain (I. Kadetea, kopa) Michelinen.

13:00etan, Ostadar-Kostkas M.B. (Kadeteen Ohorezko Maila) Michelinen.

15:30etan, Texas Lasartearra-Beti Ona (I. Jubenila, kopa) Michelinen.

15:30etan, Kostkas M.B.-Ostadar (Jubenilen Ohorezko Maila) Matigoxotegi, Donostian.

16:00etan, Beti Gazte-Texas Lasartearra (I. Erregionala, kopa) Mastegi, Lesakan.

17:15etan, Ostadar-Urnieta (I. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

Igandea 22

10:00etan, Ostadar-Añorga (Emakumezkoen Erregionala, igoera) Michelinen.

11:45etan, Ostadar-Allerru (Erregionala Goren) Michelinen.

18:00etan, Vasconia-Ostadar (I. Kadetea, igoera) Puio, Donostian.

ARETO FUTBOLA

Ostirala 20

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

19:30etan, Ayete-Los Tiburones Rojos
20:30etan, Viña del Mar-Trumoi

Larunbata 21

17:30etan, Buruntza K.E. Aldaz- San Jorge Santurtzi (Nazional III. maila) Kiroldegian.

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10etan, Illum-El Bar de Mau
10:10etan, ISU Leioak-Izkiña
11:10etan, Dakara-Naiban
12:10etan, Izarra-Oria kristaldegia
13:10etan, Buenetxea-Balardi

Igandea 22

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

10:00etan, Ilargi-Txindoki
11:00etan, Indaux-El Punto

PILOTA

Larunbata 21

16:00etan, Intza-Oiarpe I (Errendimendu txapelketa, eskuz binaka alebina 2. urtea) Michelingo pilotalekuan.
16:00etan, Intza-Hernani 4 (Errendimendu txapelketa, eskuz binaka infantilak) Michelingo pilotalekuan.

16:00etan, Intza-Gailurrearantz (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. kadetea) Michelingo pilotalekuan.

16:00etan, Intza-Beloki (Udaberri txapelketa, eskuz binaka I. nagusiak) Michelingo pilotalekuan.

17:00etan, Bortzirial-Intza (Euskal Herriko txapelketa, eskuz binaka kadeteak) Ezteraga, Beran.

ATLETISMO

Igandea 22

10:00etatik aurrera, herritar talde batek Juan Muguerza LXIX nazioarteko krosean parte hartuko du, Elgoibarren.

11:00etan, herritar batzuk Zumaiaiko Txakur-krosa proban parte hartuko dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 21

09:30etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazteek Gipuzkoako pista txapelketako bigarren jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

Igandea 22

09:30etan, Bazpi txirrindularitza eskolako gazteek Gipuzkoako pista txapelketako bigarren jardunaldia dute, Antonio Elorza belodromoan, Donostian.

IGERIKETA

Larunbata 21

16:00etan, Buruntzaldea IKT-ko infantil, junior, promesa eta absolutuak Errendimenduko ligako 3. jardunaldian lehiatuko dira, Ordizian.



JUDO

Larunbata 21

10:30etan, 2011. urtean junior, 23 urte azpiko edo senior mailan Euskadiko txapelketan domina eskuratu duten LOKEko judoek entrenamendua dute Euskadiko selekzioarekin, Usabal kiroldegian, Tolosan.

16:00etan, LOKEko kadete eta infantil mailako judoek Gasteizko Hiria sarian parte hartuko dute, Arriaga kiroldegian, Gasteizen.

ERRUGBY

Igandea 22

09:00etan, Beltzak Ostadar Jalai errugbi eskolako kideek ohiko entrenamendua izango dute, Michelinen.

BOLA-JOKOA

Igandea 22

10:00etan, Ostadar SKT-ko kideek taldekako txapelketako bigarren jardunaldia dute, Mutiloan.

Busto, Larrañaga eta Rodriguez atletak Gipuzkoako txapeldun

Espainiako txapelketarako markak ere egin zituzten

Gipuzkoako Atletismo txapelketa jokatu zen lehengo asteburuan Antonio Elorza belodromoan.

Kadete, junior eta jubenil mailako lehiaketan herriko LOKE taldeko gazteak hainbat domina eta txapel lortu zituzten. Izan ere, Itoitz Rodriguez, Eneritz Busto eta Endika Larrañaga txapeldun berriak dira parte hartu zuten probetan garaile izan ziren eta.

Kadete mailan

Oskar Goikoetxeak zuzentzen dituen gazteak hainbat probatan parte hartu zuten eta azpimarragarriak dira kadete mailan eskuratutako emaitzak.

Itoitz Rodriguez nagusi izan zen 300 metroetako lasterketan, 38,29 segundoko denbora eginaz. Marka honekin Estatuko txapelketarako txartela lortu zuen Usurbilgo atletak.

Eneritz Bustok ere altueran lortu zuen urrezko domina. Maila ezberdinetako atletak izan ziren lehiaketa honetan eta honela, Eneritzek 1,47 metroko jauzia egin zuen.

Hala baina, lehenengo postua ez ezik, zilarrezko postua lortu zuten gazteak ere izan ziren.



Itoitz Rodriguez 300 metroetako podiumean. GIPUZKOAKO ATLETISMO FEDERAZIOA

Maria Eugik 300 metroetan 43,98 segundo egin zituen eta Espainiako markatik gertu geratu zen.

Maider Rekondok pisuko proban 2. postua eskuratu zuen 9,45 metroko jaurtiketa-rekin eta Ane Galardik jauzi hirukoitzean, 10,38 metroko jauzia egin eta gero.

Gainera, Ane Galardik, 60 metroko lasterketan Estatuko txapelketako denbora egin zuen berriro ere, nahiz eta 4. postuan iritsi helmugara.

Jubeniletan ere txapelduna

Bestalde jubenil eta junior mailan, ez zen Lasarte-Oriako taldeko atleta askorik izan. Hala ere, jubeniletan, Endika Larrañaga 400 metroetan garaile izan zen.

Lan egin beharko dute LOKEko gazteek markak hobetu eta domina gehiago lortzeko. Hala ere hainbat aukera dituzte parte-hartze proba hilaibete amaieran eta, otsailan, senior mailako txapelketa eta Euskadiko txapelketa. •

Intzako pilotariek lan ona egin zuten

Michelingo pilotalekuan larunbatean bi partida polit ikusi ziren eta gainera garaipena lortu zuten Intzako bikoteak.

Euskal Herriko txapelketako bigarren jardunaldiko partida jokatu zuten Axier Arteaga eta Mikel Aranguren osatzen duten kadete bikoteak. Bizkaiaiko Olaburuko bikotea izan zuten aurrean eta 22-13 gailendu ziren.

"Partida ona izan zen eta erritmo handikoa," azaldu du Joxe Felix Solano Intzako entrenatzaileak.

Arteaga eta Aranguren hasieratik aurreratu ziren markagailuan. Mikel Aranguren atzelariaren lan onak eta Axier Arteagaren erremateek 12 eta 5 jarri zuten partida etxekoan alde.

Arerioak ez zuten amore eman nahi izan eta "tanto politak eta landuak" egin ostean, 15 eta 13ra gerturatu zen.

Hala ere, Intzako bikoteak 16 tantoa egin eta "sakea eskuartzarekin batera, bere jokoa



Euskal Herriko txapelketako partida ederra ikusi zen Michelingo pilotalekuan. T.VALLÉS

ezarri eta 22-13 irabazi zuten," aipatu du entrenatzaileak.

Beste txapelketak

Bestalde, infantilek errendimendu txapelketako lehenengo partida jokatu zuten.

Honetan, Jagoba Mendizabalek eta Eneko Sarasolak Hondarribiako bikotea zortzi tantotan utzi zuten, haien nagusitasuna erakutsiz.

Honetaz gain, Udaberri txapelketako lehenengo jardunaldia ere jokatu zen. Honetan Intza elkarteak bi partida jokatu zituen, bata Urretxun I. mailako kadeteena eta bestea, I. mailako helduena Azpeitian.

Senior mailan, lan ona egin zuen Aranburu eta Elolak osatzen duten bikoteak. Ilunpeko bigarren bikoteari 21 eta 22 irabazi baitzuten.

Bestalde, Xabi Prieto eta Aritz Solano kadeteek ez zuten egun ona izan eta 22 eta 3 galdu zuten. •

Egunero

Erakusketa

NAROA ARABIOTORRE artistaren MARGOEN ERAKUSKETA. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **urtarrila osoan zehar.**



Osteguna, 26

Zinea

OSTEGUN ZINEAREN baitan emango da CIRKUS COLUMBIA filma, Okendo Zinema taldearen eskutik. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **21:30ean.** GAZTELANIAZ. **Sarrera 4,40 euro.**



Ostirala, 27

Kontzertua

Añorgako BI "N" BI taldea gaztearen rock doinuak entzungo dira. JALGI KAFE-ANTZOKIAN, **23:00etan**



Supersorginaren abentura berria

"KIKI SUPERBRUJA 2" filma HAURRENTZAKO ZINEAREN barruan. Anaia txiki batek gogaitu dezake eta eskolaz aldatu berri zarenean eta lagunak ez duzunean are gehiago. Horrela ez da erraza supersorgin izatea. Kika oso nekaturu dago bere anaia txikiak, baina bere mahai gainean eskutitza misteriosubata agertzen da bat-batean.

IGANDEA 22
17:00ETAN
MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN
SARRERA, 3,40 EURO. GAZTELANIAZ

Larunbata, 28

Antzerkia

HAURRENTZAKO ANTZERKIA den OGRO TXIKIA lana ikusgai. MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEAN, **18:00etan,** EUSKARAZ. **Sarrera on-line hartuta 3 euro,** egunean bertan **3,40 euro.**

Metal gaua

Oiartzungo HIRA eta Usurbilgo MENDEKU ITXUA taldeen eskutik rock eta heavy metal emanaldia entzuteko aukera izango da, metal gauaren barruan. ABEND KAFE-ANTZOKIAN, **00:00etan.**

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00
eta arratsaldetan 16:00 - 21:00
Larunbata 9:30 - 13:00

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Zabaletatik Txuri-urdirera

Urtarrilaren 28an, larunbata, Zabaleta auzoko haurrak Txuri-urdirera joango dira patinatzerara. Auzoko plazatik goizeko 10etan aterako dira eta gero, eguerdian Babarrun jana egingo dute auzotarrek Xirimiri elkarteak.

Joan nahi dutenek auzoko dendan eman beharko dute izena. Bazkarirako izena emateko epea hilaren 26an ostegunean itxiko da. Bietara joatea ez da derrigorrezkoa.

Gazteburuan Txuri-urdirera

Gazte klubeko gaztetxoak otsailaren 4an arratsaldean Donostiako Txuri-Urdin izotz jauregira txangoa izango dute. Prezioa 10 eurotako izango da Ttakuneko bazkideentzat, eta bazkide ez direnek 12 euro ordaindu behar dituzte.

Izena ematea bulegoan edo telefonoz egin daiteke. Ordainketa bulegoan, Internet bidez edo Kutxan 2101 0048 25 0010089696 zenbakian egingo da. Azken bi kasuetan, ordain-agiriaren kopia bat aurkeztu behar da Ttakun kultur elkartearen edo aisia@ttakun.com helbidera bidali beharko litzateke.

1961ean jaiotako enafaria

1961 urtean jaiotako herritarrek Txartel Txoko jatetxean afaria antolatuta dute otsailak 11ean, 21:00etan.

Afariaren prezioa 30 eurotako da eta ordainketa aurretik egin behar da honako kontu korrante zenbakian, 2101 0092 15 0012963252 (Marta Garcia Ortiz). Izena emateko azken eguna otsailaren 6a izango da.

Ostadar SKT-ko zozketa

Ostadar SKT-ak urtero "El Niño"ko loteriatan batera nekazal etxe batean bi pertsonentzako asteburu pasazozketatzen du eta aurtengo zenbakia irabazlea 71.208 izan da. Beraz, irabazleak Ostadarreko bulegora deitu behar du saria eskuratzeko.

Sarreren zozketa

Udaleko kultura sailak Manuel Lekuona kultur etxean urtarrilaren 28an izango den "Ogro Txikia" haur antzerkirako sarrearen zozketa-tuko ditu.

Zozketa hauetan parte hartu ahal izateko Lasarte-OriaSarean.eu web gunean harpidetuta egon behar da.

Zozketa urtarrilaren 25ean burutuko da eta emaitza email bidez jakinaraziko zaie parte hartzaileei.

Gasolina merkeago

Aterpea-rekin

Oriako Allerru gasolindegian depositua bete eta Aterpeko txartelarekin ordaintzen duten herritarrek, ordainketa egiteko garaian, %2ko beherapena izango dutela gogoratu du Lasarte-Oriako merkatarien elkarteak.

Galdutako gauzak

Santo Tomaseta zapi bat aurkitu da eta amantala Olentzer egunean. Jabeak aisia@ttakun.com helbidean edota 943 371448 telefono zenbakian eska dezakete.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitza

Udal jangelan catering zerbitzurik ez!

Urtarrilak 10ean, lanetik bueltan nentorrela irratsaio batean minbiziaren inguruan hizketan zebiltzala konturatu nintzen. Dirudienez, duela gutxi Nafarroako Unibertsitateko zientzialari talde batek buruturiko ikerketa batean jasotakoaz ari ziren. Estatu mailan egindako azterketa honek, zehazki kolon minbiziaren sorburu eta prebentzio moduak identifikatzea zuen helburu. Hain zuzen, estatu mailan minbiziaren eraginez hiltzen direnen artean, emakumeetan bular minbizi eta gizonetan birika minbiziaren ondoren, koloneko minbizi kasuak direlako gehienak.

Bertan esandakoaren aburuz, koloneko minbizi edukitzea arriskua ez dago guztiz ezabatzea, ordea, programa prebentiboak martxan jartzearekin minbizi kasuak jaistea lorgarria zela zioten. Ikerketaren ondorioen arabera, kolon minbizi kasuen %40a elikadura, pisua eta jardura fisikoarekin zuzenki erlazionaturik dago. Elikaduraren arloan, honako dietak minbiziaren kontra babes gaitzake; fruta eta barazki freskoak, olioa eta arraina lehenetsi, haragi kontsumoa eta animalia gantzaren aurrean.

Irratiko mahai ingurua bukatzean, elikaduraren garrantziaz hausnartzeko parada izan nuen eta herrian

udalak kudeatutako zerbitzu eredugarri bakarrenetakoa kolokan zegoela gogora ekarri zidan: Udal jangela! Herritarrok begirunez eta harrotasunez zaindu beharreko udal jangela zerbitzua. Kalitate gutxi eta kontsumo azkarreko eruditik babesturik genuen gure altxor txikia desagertu behar al da?

Gure seme-alaben hezikuntzan, haien intelektua lantzeaz gain, bizi modu osasuntsuak eta ingurumena zaintzeak duen garrantzia txikitatik txertatzea premiazkoa da, gerora beraien osasunean eragingo duela jakin badakigulako. Eta nola lortuko dugu hori egunero gure txikiak prefabrikaturiko baz-

kariak jasoko badituzte?

Gizartean ingurugiroa zaintzearen beharra geroz eta zabalduago dago eta bertan dirua inbertitzea logikoa iruditzen zaigu. Elikadura ere, gure gaitzen ehuneko handi batean du eragina, baina ez berehalakoa. Konsekuentziak epe luzean azalratzen dira eta herritarren gehiengoak ez du gaia merezi duen kezkaekin ikusten, sensibilizazio eza nabarmena da. Beraz, administrazio publikoek herritarren osasunerako positiboak diren zerbitzuak areagotu beharko litzateke?

Bestalde, urtarrilak 9ko Txintxarri irakurri dudanez, PSE-EEK erabaki politikoetan herritarren parte-hartzea sus-

ztatzen dituzten tresnak sortzea begi onez ikusten du. Hurrengo alean, urtarrilak 13an, Alaitz Mendizabalek parte hartze saileko buruak, gaiak parte hartzearen bidez aurrera eramateko, eta herritarrekin elkarlanean aritzeko Udal gobernuak behar dituen baliabide guztiak berehala jarriko zituela zioen. Beraz, herritarren parte hartze bidez emango dioten tresnak sortzearen alde adostasunak egonik, udal jangelaren inguruan debate publikoa sustatzea aurreikusten al da?

Udal jangelan catering zerbitzurik ez! Ez kontatu gurekin.

Mikel Etxeberria
Garmendia

Esperientzia berri batean parte hartu nahi al duzu?



EKO SHOPPER



DOHAKO AHOLKULARITZA-ZERBITZUA, HONDAKIN GUTXIAGO SORTZEN DUEN EROSKETA EGIN AHAL IZATEKO

Erosketak egiteko orgatxo tolesgarri bana (ikus irudikoa) emango zaie kanpainan aholku ematen zaien guztiei



IZENA EMATEKO AUKERAK

2012ko otsailaren 5era arteko epea duzu izena emateko.

- Deitu **943 670 249** telefono-zenbakira (9:00-14:00/15:00-18:00).
- Bete Sanmarko Mankomunitatearen webguneko formularioa: www.sanmarko.net
- Jo leku hauetan aurkituko dituzun **informaziogune**etakoren batera.

INFORMAZIOGUNEA	LEKUA	DATA	ORDUTEGIA
Urbil merkataritza-gunea	Usurbil	urtarrilak 27	16:00-22:00
Bulebarra (Musika-kioskoaren ondoan)	Donostia-San Sebastián	urtarrilak 28	11:00-14:00 / 16:00-20:00
Merkatu txikia (Gamon Zumardia)	Errenteria	urtarrilak 30	10:00-14:00
Garbera merkataritza-gunea	Donostia-San Sebastián	otsailak 4	16:00-22:00

Sanmarko Mankomunitatea - Mancomunidad de San Marcos
Vitoria-Gasteiz, 10. 20018 Donostia - Tel. 943 214 977
www.sanmarko.net www.merka2sanmarcos.org



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketa Departamentua
Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio

